


ASTEKARIA: 20. atala

DATA: 2024/11/08

GUREAN

VALENTZIARAKO BIDEAN

Botikinerako sendagaiak, garbiketa-produktuak, lixiba, higiene pertsonalerako gauzak, konpresak, musukoak, pardelak... Aste honetan, bilketa solidarioa egin dugu helburu bakarrekin: Valentzian Danak utzi duen egoerarekin elkartasuna erakustea. Materiala jasotzeko azken eguna gaur izan da eta egia esan, emaitzarekin pozik gaude. Eskerrik asko guztioi! Zuek emandako produktu hauek guztiak Valentziara garraiatzea da bigarren fasea. Bihar bertan, Intxaurrendoko gazte batzuek kargatuko dute furgoneta eta 570 km egingo dituzte. Eutsi goiari, Valentzia!



GURE INGURUAN

SAN MARTIN AZOKA

NON: ZEGAMAN
NOIZ: 2024/11/09



Zegama oso ezaguna da urtero maiatzaren bukaeran ospatzen den mendi maratoi famatuarengatik; milaka mendizale biltzen dira munduko korrikalari onenak ikusteko. Baina herri horretan azoka ezagunak egiten dira, hala nola San Martin azoka. Bertako produktuak dastatzeaz gain, Aizkorri-Aratz Parke Naturalean ekoiztutako Idiazabal gazta lehiaketa ikusi ahalko duzu.

BEHOBIA DONOSTIA

NON: BEHOBIATIK DONOSTIARA
NOIZ: 2024/11/10

Behobia-Donostia lasterketa bat baino gehiago da. Behobia-Donostia batez ere sentimendu bat da. Urte askotan milaka lasterkariren ilusio, sentsazio eta esfortzuek sortutako sentimendua eta, beste gutxik bezala, kirola ulertzen, gozatzen eta maitatzen duen herri baten harrerak eta jarrerak sortutako sentimendua.

